



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoak 28

Vitoria-Gasteiz, 28 de marzo de 2017

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK EKONOMIAREN SUSPERRALDIAREN ETA ENPLEGUAREN ALDEKO 2017-2020 ESPARRU PROGRAMA ONETSI DU

- **Programak 8.800 milioi euroko aurrekontua du eta legealdi honetan langabezia-tasa %10aren azpitik jaitea du helburu**

Eusko Jaurlaritzak gaur izan duen bileran onetsi du **Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko 2017-2010 Esparru Programa**, aurreko legealdian hasitako ekonomiaren susperraldia sendotzea helburu duena. Programaren asmoa da euskal enpresen lehiakortasuna indartzea, eta susperraldi ekonomikoak enplegu gehiago eta kalitate handiagokoa lortzea, legealdi honetan langabezia-tasak %10aren azpitik murriztearren.

Iñigo Urkullo Lehendakariak aurkeztu duen programa honek oraingo Eusko Jaurlaritzak hartutako konpromisoa betetzen du, bere Gobernu Programan bildutakoa.

Programa honetarako 2020ra arte kalkulatu diren baliabideak 8.800 milioi eurokoak dira guztira: 1.175 M€ Enplegu Planerako; 5.225 M€ Inbertsio, Berrikuntza, Internazionalizazio eta Industrializaziorako; eta 2.400 M€ abaletan.

Gaur onetsitako Esparru Programa Herrialde estrategia bat da, eta ideia hauetan laburbiltzen da:

1. **Estrategia integratu bat, Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldekoa**, 8.800 milioi euroko aurrekontua duena langabezia-tasa %10aren azpitik murrizteko.
2. **Enplegu Plan Espezifiko** bat, prestakuntza, ekintzailtza eta lan-munduan txertatzea bultzatzeko.
3. **Gazteentzako enplegua bultzatzeko lerro espezifiko bat** abian jartzea, 20.000 gazteri lan-aukera bat eskaintzea ahalbidetuko duena.
4. **I+G+Brako aurrekontuaren urteko %5a goratzea.**
5. **Euskal enpresa Txikien eta Ertainen internazionalizazioan laguntzea.**
6. **“RIS3 espezializazio-estrategia adimenduna” garatzea**, Europan goi-mailako berrikuntzaren eskualde gisa Euskadi sendotzeko.
7. **Laugarren iraultza industrialaren alde apustu egitea**, Euskadiren garapen ekonomikoaren eragile gisa.

8. **Euskal ETEen digitalizazioa indartzea**, Euskadiren Agenda Digitalaren estrategia garatuz, 1.500 enpresa modernizatu eta digitalizatzearen.
9. **Prestakuntza dualaren alde apustu egitea**, baita Lanbide Heziketaren alde ere lantegietan.
10. **Enplegu publikoa berritzea eta sendotzea**, aurreikusitako erretiroen agertokiari erantzunez.

Azkenik, aurreikusita dago programa honek ondokoetan eragina izatea 2020ari begira:

- Bultzatutako **45.000** enplegu
- Lagundutako **6.000** enpresa berri
- Finantzatutako **100** ikerketa-proiektu berri
- Kanpoko merkatuetarako sarbidean lagundutako **1.200** ETE
- Beren modernizazio- eta hedapen-proiektuetan lagundutako **1.100** ETE
- Lagundutako ETEetako **4.100** berrikuntza-proiektu

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

EUSKO JAURLARITZAK 2018KO URRIRA ARTE MUGATU DU TOKIKO ERAKUNDEEK ERREGISTRO ARRUNTAK PAPEREAN ERABILI AHAL IZATEKO EPEA

- **Data horretatik aurrera, euskal erakunde guztiek, tokikoak barne, prest eduki beharko dute “Erregistro Elektronik Orokorra”, *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, ezarritakoaren arabera***

Gobernu Kontseiluak Euskadiko tokiko erakundeekin sinatutako lankidetzahitzarmenaren ereduko bi klausula aldatzea onetsi du gaur, 2018ko urriaren 2a izan dadin epe-muga Euskal Administrazio Publikoari zuzendutako dokumentuak paperean erregistratu ahal izateko.

Aldaketaren helburua da Euskadiko 251 udalek dagozkien erregistro arruntak paperean erabiltzen eta herritarren erabilerarako jartzen jarraitu ahal izango duten epea mugatzea. 2018ko urriaren 2tik aurrera, guztiek eduki beharko dute, nahitaez, “Erregistro Elektronik Orokor” bat, 2016ko urriaren 2an indarrean sartu zen *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, ezarritakoaren arabera*.

Gaur onetsitako aldaketek, zehazki, bigarren eta seigarren klausuletan dute eragina, Eusko Jaurlaritzak hemendik aurrera tokiko erakundeekin sinatzen duen edozein hitzarmenen indarraldiak 2018ko urriaren 2ko epe-muga izan dezan.

Hezkuntza

550.000 EURO HEZKUNTZA-BIKAINTRASUNERA ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA-PROIEKTUETARAKO

2017-2018ko ikasturtean hezkuntza-bikaintasunera zuzendutako prestakuntza-proiektuak martxan jartzeko itunpeko ikastetxeak eta Hezkuntza Sailaren menpe ez dauden unibertsitateaz kanpoko titularitate publikoko ikastetxeak (heziketa-zikloak izan ezik) deitzen dituen Agindua onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran Gobernu Kontseiluak. Deialdi honek 550.000 euroko diru-kopurua dauka.

Ikastetxea zein irakaslea funtsezkoak dira irakatsi eta ikasteko prozesuan, parte aktiboa izan behar dute hobetzeko prozesuan, eta etengabeko hausnarketan aritu. Horregatik, deialdi honek proposatzen du prestakuntza eta berrikuntza-jarduerak nahiz proiektuak ikastetxeen barrutik eta haien premietatik abiatu beharrekoak direla. Horrela, soluzioak ikastetxean bertan aplika daitezke, eragin onuragarria eta neurgarria izan dezaten. Ikastetxe jakin baten barruko bikaintasun-proiektuek eta esperientziek eragin handiagoa dute, irakasleei, gainerako langileei eta ikasle guztiei eragiten baitie.

Ikastetxeek deialdi honetara aurkezten dituzten proiektuek, jarraian zehaztuko diren hezkuntza-bikaintasunerako prestakuntza-proiektu motaren baten barnean kokatuak egon beharko dute:

-Berrikuntza-proiektu integralak eta curriculuma aberasteko proiektuak: berrikuntza-proiektu integralek prestakuntza-jarduerak proposatzeko eta zentroaren hezkuntza-ereduaren gainean hausnartzeko aukera ematen diete ikastetxeei, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan beharrezko hobekuntzak sartzeko, kompetentziak eskuratzean oinarritutako ikuspegitik. Proiektu hauen iraupena bi edo hiru ikasturtekoa izango da. Urte horiek amaitzean, ikastetxean bere esperientzia gainerako ikastetxeei aurkeztu ahal izango die, *Partekatuz ikasi* modalitatearen bidez.

Bestetik, curriculuma aberasteko proiektutzat hartzen dira, ikasgelan metodologia aktiboak ezartzen dituztenak, eta ikasle guztiak artatu eta aberasteko jarduerak ezartzen dituztenak, betiere ikasleen ikasketarako motibazioa piztea helburu izanik. Proiektu hauek eskolaz kanpoko jarduerak ere har ditzakete. Prestakuntza modalitate honetarako 119.000 euro bideratzen dira, deialdiaren barnean.

-Hezkuntza berrizatzeko prestakuntza-proiektuak: proiektu hauek, zeharkako gaitasunak lortzeko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren inguruan prestakuntza-jarduerak proposatzeko aukera ematen diete ikastetxeei, eta era berean, aukera eskaintzen diete ikasleek eskuratutako jakintzak praktikan jartzeko eta gaitasunetan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik edukirik esanguratsuenak hautatzeko egoera-arazoak aztertzeko. Proiektu hauek aintzat hartu beharko dute ikastetxearen hobekuntza globala. 362.000 euro bideratuko dira proiektu hauetarako.

-Partekatuz ikasi esperientziak: irakasleentzako prestakuntza mota honetan, ikastetxe batek laguntza eta orientabidea eska diezaioke ikastetxe tutore bati, bikaintzat jotzen diren eta eredugarriak diren praktika pedagogikoen berri izateko eta haiek gauzatzeko lehenengo pausoak emateko. Diru-laguntza deialdi honek ikastetxeek aukeran dituzten *Partekatuz ikasi* esperientzien zerrenda ere jasotzen du. 69.000 euro bideratzen dira prestakuntza mota hoetarako.

2016-2017 ikasturte honetan, hezkuntza-bikaintasunerako 114 prestakuntza-proiektuk jaso dute diru-laguntza –hiru mota horietakoren batean- iazko deialdian haiek aurkeztu zituzten ikastetxeetan garatu ahal izateko.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA EL PROGRAMA MARCO POR EL EMPLEO Y LA REACTIVACIÓN ECONÓMICA 2017-2020

- **El programa está dotado con 8.800 millones de euros y busca reducir la tasa de paro por debajo del 10% durante esta legislatura**

El Gobierno Vasco ha dado luz verde en su reunión de hoy al **Programa Marco por el Empleo y la Reactivación Económica 2017-2020** que tiene como objetivo consolidar la recuperación económica iniciada en la legislatura anterior. El programa busca reforzar la competitividad de las empresas vascas y lograr que esta recuperación se materialice en términos de más empleo y de mejor calidad, a fin de reducir las tasas de paro por debajo del 10% a lo largo de esta legislatura.

La iniciativa, que ha sido presentada por el Lehendakari Iñigo Urkullu, da cumplimiento al compromiso adquirido por el actual Gobierno Vasco y se recoge en su Programa de Gobierno.

Los recursos estimados para este programa hasta 2020 ascienden a un total de 8.800 millones de euros: 1.175 M€ para el Plan de Empleo; 5.225 M€ para Inversión, Innovación, Internacionalización e Industrialización; y 2.400 M€ en avales.

El Programa Marco aprobado hoy se constituye como una estrategia de País y se resume en las siguientes ideas:

11. Una **Estrategia integrada de apoyo al Empleo y la Reactivación Económica** dotada con 8.800 millones de euros para reducir el paro por debajo del 10%.
12. Un **Plan Específico de Empleo** para favorecer la formación, el emprendimiento y la inserción laboral.
13. Puesta en marcha de una **línea específica de apoyo al empleo juvenil** que permitirá ofrecer una oportunidad laboral a 20.000 jóvenes.
14. **Crecimiento anual del 5% del presupuesto destinado a I+D+i.**
15. **Apoyo a la internacionalización de las Pequeñas y Medianas empresas vascas.**
16. **Desarrollo de la “estrategia de especialización inteligente RIS3”** para consolidar a Euskadi como región de alta innovación en Europa.

17. **Apuesta por la cuarta revolución industrial** como motor del desarrollo económico de Euskadi.
18. Potenciar **la digitalización de las PYME vascas**, desarrollando la estrategia de la Agenda Digital de Euskadi para la modernización y digitalización de 1.500 empresas.
19. **Apuesta por la formación dual** y la Formación Profesional en los centros de trabajo.
20. **Renovación y consolidación del empleo público**, dando respuesta al escenario de jubilaciones previsto.

Finalmente, está previsto que este programa tenga un impacto de cara al año 2020 de:

- **45.000** empleos incentivados
- **6.000** nuevas empresas apoyadas
- **100** nuevos proyectos de investigación financiados
- **1.200** PYME apoyadas en su acceso a mercados exteriores
- **1.100** PYME apoyadas en sus proyectos de modernización y expansión
- **4.100** proyectos de innovación en PYME apoyados

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO LIMITA, HASTA OCTUBRE DE 2018, EL PLAZO PARA QUE LAS ENTIDADES LOCALES PUEDAN UTILIZAR LOS REGISTROS ORDINARIOS DE PAPEL

- **A partir de esta fecha, todas las instituciones vascas, incluidas las locales, deberán tener listo el “Registro Electrónico General”, tal y como establece la *Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas***

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy, la modificación de dos cláusulas del modelo de convenio de colaboración que suscribe con las entidades locales de Euskadi, para que el día 2 de octubre de 2018, sea la fecha tope en la que se puedan registrar documentos en papel dirigidos a la Administración Pública Vasca.

El objetivo de la modificación es limitar el plazo en el que los 251 ayuntamientos de Euskadi, puedan continuar utilizando y poniendo a disposición de la ciudadanía, sus registros ordinarios de papel. A partir del 2 de octubre de 2018, todos deberán, obligatoriamente, contar con un “Registro Electrónico General”, tal y como lo establece la *Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas*, que entró en vigor el pasado 2 de octubre de 2016.

Las modificaciones aprobadas hoy afectan, concretamente, a las cláusulas segunda y sexta, para que cualquier convenio que el Gobierno Vasco firme a partir de ahora con las entidades locales, tenga un plazo máximo de vigencia del 2 de octubre de 2018.

Educación

550.000 EUROS PARA PROYECTOS DE FORMACIÓN HACIA LA EXCELENCIA EDUCATIVA

El Consejo de Gobierno, a propuesta de la Consejera de Educación, ha aprobado, en su reunión de hoy, la Orden por la que se convoca a los centros privados concertados y centros de titularidad pública no dependientes del Departamento de Educación de enseñanza no universitaria (excepto ciclos formativos), para la realización de Proyectos de Formación hacia la Excelencia educativa durante el curso escolar 2017-2018. Esta convocatoria cuenta con un importe de 550.000 euros.

Tanto el centro educativo como el profesorado, son agentes fundamentales en el proceso de enseñanza-aprendizaje y deben ser parte activa del proceso de mejora, participando en una continua reflexión. Por esta razón, esta convocatoria propone que las acciones y los proyectos de formación e innovación han de partir del contexto de los centros y de las necesidades que éstos manifiestan. De esta manera, aportan soluciones prácticas factibles que se puedan aplicar en el propio centro y generen un impacto beneficioso y cuantificable. Los proyectos y experiencias de formación para la excelencia en el contexto de un centro educativo generan un mayor impacto, en cuanto que afectan a todo el profesorado, al resto del personal, y a todo el alumnado en su conjunto.

Los proyectos presentados a esta convocatoria por los centros educativos deberán responder a alguna de las siguientes modalidades de formación hacia la excelencia educativa:

-Proyectos integrales de innovación y proyectos de enriquecimiento curricular: Los proyectos integrales de innovación educativa ofrecen a los centros educativos la oportunidad de que propongan actividades de formación y reflexionen en torno al modelo educativo del centro, de cara a introducir las mejoras necesarias en el proceso de enseñanza-aprendizaje desde un enfoque centrado en la adquisición de competencias. Su duración será de entre dos y tres cursos. Finalizados los años del proyecto, el centro podrá presentar su experiencia a los demás centros a través de la modalidad de *Partekatuz ikasi* como centro tutor. Por otra parte, se entiende como proyectos de enriquecimiento curricular aquellos que implementan en el aula metodologías activas y el desarrollo de programas de actividades para atender y enriquecer a todo el alumnado, con el fin de incentivar su motivación al aprendizaje. Estos proyectos podrán contemplar también actividades en horario extraescolar. Esta modalidad formativa contará con 119.000 euros, dentro de la convocatoria.

-Proyectos de formación para la innovación educativa: se trata de proyectos que ofrecen a los centros educativos la oportunidad de proponer actividades formativas en torno al proceso de enseñanza-aprendizaje para el logro de las competencias transversales, así como la elaboración de

situaciones-problema a través de las cuales el alumnado pueda poner en práctica los saberes adquiridos, y la selección de los contenidos relevantes desde la perspectiva de una educación basada en competencias. Estos proyectos habrán de tener en cuenta la mejora global del centro. Se destinan 362.000 euros para estos proyectos.

-Experiencias *Partekatuz ikasi*: Esta modalidad de formación del profesorado consiste en que un centro educativo solicita de otro centro tutor acompañamiento y orientación para conocer las prácticas pedagógicas consideradas de excelencia y que constituyen un modelo a seguir, para dar los primeros pasos para su puesta en práctica en el centro solicitante. La convocatoria de subvenciones recoge las experiencias *Partekatuz ikasi* que están a disposición de los centros solicitantes. Se destinan 69.000 euros para esta modalidad formativa.

Durante el presente curso 2016-2017, 114 proyectos de formación hacia la excelencia educativa –en alguna de las tres modalidades contempladas- han recibido subvención para su desarrollo en los centros educativos que los presentaron a la anterior convocatoria.